

IZEN PROPIOEN DEKLINAZIOAREN GAINEAN (I)**1. SARTAURREA**

Bergaran 1978an eginiko EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZAR-ean hartu zituen gure Akademiak, oker ez banago, deklinabideari buruzko lehen erabakiak, izen komunei zein izen propioei buruzkoak hartu ere. Harrezkero, nik dakidala, ez du bestelako erabakirik hartu izen propioen arloan behintzat. Baina oraindino hutsune batzuk daude deklinabideari buruzko erabakiotan, osatu bako puntuak.

Izen propioei buruzko hutsunetariko bat ikertu gura dut, leku- izen propioena, eta bertan leku izen propio batzuk ditut ikergai: izen bera daukaten leku-izen propioak. Esate baterako *Getaria*, Euskal Herrian hiru baitaude: bata Araban, bestea Gipuzkoan eta hirugarrena Lapurdin. Eta izen propiook halako kondizio jakinetan leku-izen propioei dagokien deklinabidea barik leku-izen komunei dihoakioena hartzen dute.

Beraz, leku-izen propio batzuk izen komun deklinatzen diren ustea (noiz-nola) egiaztatu nahi nuke, baina leku-denbora kasuetara mugatua.

Hau da, toponimo batzuk, esaterako Durango, izen propioei dagokien mugagabeen deklinatzen badira ere.

(1) **Durango-N, Durango-RA, Durango-TIK,...**

halako egoera jakinetan leku-izen komunen deklinabidea hartzen dute. Eta horrenbestez, mugatu singularrean, mugatu pluralean eta mugagabeen deklinatzen dira:

(2) (a) mugatu singularrez: **Durango-AN, Durango-RA, Durango-TIK...**(b) mugatu pluraletz: **Durango-ETAN, Durango-ETA-RA,...**(c) mugagabez: **Durango-TAN, Durango-TARA,...**

Eta (1) eta (2c) adibideei erreparatuz gero, bictan mugagabeen deklinatzen bada ere Durango, arras bestelakoak dira deklinabideok. Deklinatu ere, lehenengoan izen propioa den aldetik deklinatzen da mugagabeen, eta bigarrenean izen komun erabilia den partez.

Guztia hau egiaztatzeko ez dut idatzizko adibide bat bera ere kausitu, baina egon litezke egon. Hortaz, batzuetan euskara mintzatuan zabal-edo dabilzan adibideak erabiliko ditut frogatu gura dudanaren indargarri eta argigarri. Eta beste batzuetan, lantxo honetarako beren-beregi asmatuak, baina bcti ere edozein hiztun jatorrek entelegatzeko besteko argiak, nik uste.

Gure euskara euskalkitan dago zatikatua eta anitz euskalki ez datoz bat hainbat erabileratan. Nire proposamenean, komun erabiltzen diren leku-izen propioen mugatu singularrari (2a) dagokionez Bizkaia-berbetan, giputz-hizketan eta goi nafarrerako zati batean baino erabiltzen ez delakoan nago. Baina mugatu pluralari (2b) eta mugagabeari (2c) dagokienez Euskal Herri osoan.

Proposaturikoa egoki hideratzeko lehenengo eta behin izen propio eta komun ezaugarriak aztertuko ditut, zer duten amankomun eta zer bereizgarri (2. apartadua). Eta ondoren zertan den leku-izen propioen deklinabidea erabaki mailan Euskaltzaindiaren aldetik (3. apartadua).

Horretara ezkerro, lantxo honen muinera joko dut eta azalduko leku-izen komun erabiltzeko zertzuk kondizio bete behar dituzten leku izen propio batzuek (4.1. azpiapartadua). Hurrena, leku-izen propio batzuen eredu Durango hartuko dudalarik, komun erabiliko dut eta mugatu singularrez, pluralez eta mugabez deklinatuko (4.2. azpiapartadua).

Terminologiari dagokionez, ohiko izen *arruntak* eta *bereziak* barik gurago dut *komunak* eta *propioak* erabili. Arrazoi bi dauzkat horretarako. Batetik "comun/propio", "commun/prope" eta "common/proper" erabiltzen dira gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez hurrenez hurren.

Bestetik gauzak, kontzeptuak zehatz adierazi behar dira, argi eta garbi. Eta oraintsuko terminologia hori arriskugarria begitانتzen zaít, nire ustez iluna da-eta. Hona hemen, berbarako, esaldi bi ilunak, bitara uler daitezkeenak:

Hauek izen berezi bereziak dira
Izen arrunt hau arrunt arrunta da Lekeition

Baina esaldiotan terminologia alda dezagun eta *propio* eta *komun* erabil. Eta lausoa behingoan desagertzen da, era bakarrean entelegatzen baitira esaldiok:

Hauek izen propio bereziak dira
Izen komun hau arrunt arrunta da Lekeition.

Uste dut purismoaren sitsak janda daukagula euskara, lexiko mailan behintzat.

2. IZEN PROPIO ETA KOMUNEN EZAUGARRIAK

Apartadu honetan gaingiroki aztertuko ditut izen propio eta komunen ezaugarriak, argumentazioa ulertzeko bestean baino ez. Eta horretarako gaia hartu, Euskaltzaindiaren "Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna" izeneko liburutik hartuko dut, 37. eta 38. orrialdeetatik:

"Izen arrunten eta berezien artean bereizteko orduan bi irizpide desberdin erabiltzen ditugu, nahiz eta, zenbait kasutan, irizpide hauek elkarren artean nahasten diren, ez baitatoz beti bat:

- irizpide formala
- irizpide semantikoa

· Irizpide formalarekin "formari", izenaren itxurari bakarrik egiten diogu kasu. Horrela, izen arruntek normalean determinatzailea hartzen dutela ikusten dugu eta izen bereziak, herriz, ez:

- (18)*etxe erosi dut
- (19)etxea erosi dut
- (20)*Parisa polita da
- (21)Paris polita da
- (...)

· Bigarren irizpidea, lehendabizikoa ez bezala, semantikoa dugu formala izan beharrean, eta oraingoan esanahia hartzen dugu kontuan. Horrela, izen bereziek erreferentzia zehatza dute: Londres, Bernardo Atxaga, e.a., eta izen arruntak, aldiz, kategoria jakin bateko elementuei izena emateko erabiltzen ditugu: etxe, ikasle, e.a.."

Ageri denez, izen propioek ezin dezakete determinatzailerik har, salbuespenak salbuespen. Esaterako, Euskaltzaindiaren aipatu liburuko "Peru gureA Londresen" adibidea, nahiz eta adibide honetan bertan izenondoa (gure) kenduz gero, izen propioak berak soilik ez daukan artikulua hartzerik: *PeruA Londresen. Antzerako salbuespenak dira "Peru BATEk ez luke horrelakorik esanen" edo "Peru HAU barrabana da" esaldiak ere.

Determinatzaile arloari buruzko ikuspegia hedatuagoa, zabalagoa izateko eta geroagoko azalpenak hobeto ulertzeko, har dezagun Euskaltzaindiak berak aipatu liburuan eskaintzen duen determinatzaileen sailkapena:

1. MUGATZAILAK

Artikulua: -a,-ak,...

Erakusleak: hau, hori, ...hauek,...

2. ZENBATZAILEAK

Zehaztuak: zenbakiak,...

Zehaztugabeak: anitz, hainbat, asko,...

Orokorrak: oro, guztia,...

3. DETERMINATZAILE ZEHAZTUGABEAK : zein, edozein,...

Bestalde, eta izen komun eta propioen ezaugarrien berri zehatzago izateko, honako eskema hau ematen zaigu Euskaltzaindiaren aipaturiko liburuko 41. orrialdean:

izena: bereziak

arruntak: zenbakarriak

zenbakaitzak: neurgarriak

neurgaitzak

Eta bizidun eta bizigabe ere izan daitezkeela izenak esaten zaigu liburuon.

Euskaltzaindiaren eskemaren arabera izen komun batzuk *zenbatu* egiten dira, eta beste batzuk *neurtu* (eta badira, jakina, zenbatu eta neurtu, biak, egien dituztenak ere). Izen propioak, ostera, ez zenbatu, ez neurtu.

Izen moton ezaugarriak kontutan hartuta, laburbilduz erran dezakegu izen propio bat zenbatzen (edo neurtzen) dugunean edota cransten diogunean zenbatzaile edo determinatzaile zehaztugaberen bat, orduantxe baliatzen dugula izen komun.

Teoriatik praktikara pasatuz, esanikoa hobeto ulertzeko hona hemen pertsona izen propioen gaineko adibide batzuk:

- | | | |
|-----|--------------------------|------------------------------|
| (5) | Olatz etorri da | (Izen propioa) |
| | LAU Olatz ikusi dut gaur | (Izen propio komun bihurtua) |
| | ZEIN Olatz ikusi duzu? | (Izen propio komun bihurtua) |

Lehenengo adibidean Olatz izen propioa ez darabilgu esan-gura kontagarrian, Olatz bat baino gehiago egon arren munduan. Baina ari garan diskursoan bakarra-eta, halakotzat darabilgu, izen propio, alegia. Beste adibideetan, ostera, dihardugun diskursoan Olatz bat baino gehiago dagoenez

ingurumenak eraginda, ikuspegi kontagarrian, zenbatgarrian darabilgu Olatz, hots, izen komunen erabileran.

Era berean, izen berdineko leku-izen propio bat erabil dezakegu izen komun, toponimo bat baino gehiago egonez gero diskursoan.

Guzti hau geroago, 4.1. apartaduan, emanen dugu luze-zabalago.

3. ZERTAN DEN LEKU-IZEN PROPIOEI BURUZKO EGOERA

Leku-izenen erabilerari buruzko erabakiak aspaldi finkatu zituen gure Akademiak, 1978an Bergaran eginiko Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean finkatu ere. Eta orduko erabakiak "BERGARA-KO biltzar ondoko ERABAKIAK"(1979) izeneko liburutxo batean eta Euskaltzaindiaren "EUSKERA"(1978) aldizkarian eman ziren argitara. Geroago Hezkuntza eta Kultura Saila-k ere jakin eragin zizkigun erabakiok "EUSKALTZAINDIAREN BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK"(1984) deituriko liburuskana, berau Euskaltzaindiaren onespenez plazaraturikoa. Oraintsuago Akademiak berak bertako Gramatika Batzorde-aren EUSKAL GRAMATIKA LABURRA: PERPAUS BAKUNA"(1993) liburuan adierazi digu zelan erabili behar diren izen propioak.

Hona hemen, Euskaltzaindiarena leku-izen propioei buruzko erabakiok "Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna" liburu-ko 507. orrialdetik hartuak, Bilbo dela berba eredugarria. Nire argumentaziorako besterik behar ez eta, leku-denborazko kasurik inportanteenak baino ez ditut paratu:

22.4. Bokalez bukatutako leku izenak: **Bilbo**

(...)	
5) Inesiboa	Bilbon
6) Leku genitiboa	Bilboko
7) Adlatibo s.	Bilbora(t)
(...)	
10) Ablatiboa	Bilbotik
(...)	

Kuadroari ondo so eginez, Bilbo leku izenari artez-arte gaineratzen zaizkio deklina-markak (-n, -ko, -ra, -tik, ..). Izen propioak diren bestean deklinabide bakarra, mugagabea alegia, onartzen dute-eta.

Beraz, leku-izen propioak ez dira ez mugatu singularrean ez mugatu pluralean deklinatzen, deklina-modu hauek izen komunei dagozkie-eta.

Eta Euskaltzaindiaren leku-izen propioei buruzko kuadro hauxe erabiliko dugu gure frogabidearen oinarri eta abiapuntu.

4. AZTERBIDEA

Apartadu honetan lehenengo eta behin leku-izen propio edo toponimoak nolatan erabiltzen diren izen komun ikertuko dut. Jarraian leku-izen propio bat komun baliatzen den kasua jorratuko dut, enparauen jarraibide.

4.1. LEKU IZEN PROPIOAK KOMUN ERABILTZEKO KONDIZIOAK

Apartadu honetarako baitezpada entelagatu behar da ongi 2. apartaduan errandakoa izen komun eta propioez. Alegia, zeintzuk ezaugarri dituen batak zein besteak eta noiz-zelan erabiltzen diren izen komun izen propioak. Ondoren, hangoa zehatzago, argiago ematen egingo ditut ahaleginak hemen.

Izen propio bereko entitate asko egon daitezke, baina bakarra badago darabilgun diskursoan izen propio erabiliko dugu beti. Ostera, diskursoan entitate bat baino gehiago egon eta guk ikuspegi kontagarrian erabili gura izanez gero entitateok, orduan izen propiook izen komun erabiltzen ditugu, zeren eta 2. apartaduan esandako moduan izen propioak ezin baitaitezke konta. Horretarako, alegia entitateak kontatu, zenbatu nahi baditugu, izen propioak izen komun baliatu behar, gurataez. Horra, beraz, noiz-zelan izen komun erabiltzen diren izen propioak.

Bigarren apartaduan Olatz izen propioa hartuta frogatu dut gure diskurso-esparruan Olatz bat baino gehiago egon eta ikus-

pegi zenbatgarrian erabili gura izanez gero, izen komun erabiltzen dela. Hona hemen beste adibide batzuk:

- (6) ZEIN Olatzek nahi ditu andrakiletak?
BOST Olatzi egin diot agur

Eta pertsona izen propio edo antroponimoei buruz esanikoak berberak balio digu leku-izen propio batzuentzat, hau da, diskursoak eraginda leku-izen propiook komun bihur daitezkeela, baldin diskursoan izen propio bereko entitate bat baino gehiago badago.

- (7) ZEIN GoierriTAN izan zara?
ZENBAT Goierri daude?
Bizkaiko GoierriETAN izan naiz
Munduan HIRU Durango daude
ZEIN Durango ezagutzen duzu ondoen?

Euskal Herrian Goierri bat baino gehiago dago. Bata eskualdea, Gipuzkoan, eta beste batzuk, auzoak, Bizkaian behintzat. Durango ere hiru daude, Bizkaikoaz gainera Ameriketako biak.

4.2. LEKU IZEN PROPIOAK KOMUN ERABILIAK

Azpiapartadu honetan leku-izen propio bat hartuko dut eredutzat eta komun erabiliko. Jarraian mugagabeen deklinatuko dut lehenik, mugatu pluralean ondorik eta mugatu singularrean hondarreko. Azken honetan luze samartxo ihardungo dut, korapilotsua eta sasitsua du-eta azalpena.

Har dezagun deklinatzeko berba eredutzat Durango leku-izena. Nik dakidala hiru Durango daude munduan: bata Euskal Herrian, Bizkaian; eta beste biak Ameriketean.

Egin dezagun udan ikusi bako lagun batekin egiten dudala topo eta gehiagoko barik diostala agurrean:

- (8) DurangoN izan naiz aurtengo udan

Uste dut ondoko galdera hau -besteak beste- egin diezaiokedala nire aldetik:

- (9) ZEIN Durango**TAN** izan zara?

Eta inesibo (NON) kasuan *zein* determinatzaile zehaztugabearen bidez mugagabearen deklinatu dudan bestean deklina dezaket Durango leku-denborazko kasu guztietan:

- (10) ZEIN Durango**TARA** joango zara udagoien honetan?
ZEIN Durango**TATIK** etorri da Miel Anjel hegazkinez?

Eta baita leku genitibo (NONGO) kasuan ere:

- (11) ZEIN Durango**TAKO** gomutakiak ekarri dizkiozu amari?
BI Durango**TAKO** historia sakona egin behar dugu. Baina ez dugu erabaki zeintzuk Durango**TAKO**ak.

Baina dakigunez determinatzaile zehaztugabeaz (*zein, edo-zein,...*) ezeze zenbatzaile zehaztuez (*bi, hiru,...*) eta zehaztugabeaz (*hainbat, anitz, makina bat,...*) ere deklina daitezke leku-izen komunak.

Egin dezagun zenbatzaileekin izen komunak deklinatzeko aproba, orain arteko kontestuan. Eta ondoko esaldiak, besteak beste, normal-normal osa ditzakegu:

- (12) BI Durango**TAN** izan gara aurton
ANITZ Durango**TAN** ezin izan, ez dago Durango askorik eta

Orain arteko adibideetan Durango leku-izen propioa leku izen komun erabili delarik beti deklinatu da mugagabe. Ondoren mugatu pluralean deklinatuko dut. Eta horretarako erabiliko ditudan adibideak mugatu singularrean deklinatzeko baliatu dudan diskurso berean daude kokatuta:

- (13) Ameriketako Durango**ETAN** ez dakite euskaraz
Ameriketako Durango**ETATIK** senideak heldu zaizkigu

Ez dut uste adibideok entelegatzeko arazorik dagoenik, berez irteten baitute.

Behin Durango leku-izenaren komun erabilerako mugatu plural eta mugagabezko adibideak aztertuz gero, mugatu singularrezkoak jorratuko ditut ondotik.

Durango toponimoa komun erabiltzen delarik, mugatu singularrezko adibideak ematea askoz gaitzago gertatzen da pluralezkoak eta mugagabezkoak baino. Hori dela-eta, urratsik urrats eta polito-polito egingo dugu aurrera.

Horretarako, komun erabiltzen diren izen propioen mugatu singularrezko adibideak azaldu baino lehenago aztertuko ditut leku-izen komunei buruzkoak. Eta eurok ere ez dira-edo errazegi aditzekoak, entelegatzekoak.

Leku-izen komunek badute mugatu singularrean deklinatze-ko ohiko testuinguru jakina, ezagun-ezagun eta arrunt-arrunta, eta horrexegatik ez dut aztertuko hemen, edozein liburu deklinabideari buruzkoan baitago azaldua. Baina badute beste inguramen bat ere, berezia-edo. Eta bigarren hauxe ikertu behar da ondo, komun erabiltzen diren leku-izen propioena ondo ulertuko bada.

Testuinguru berezi hau Leioan 1994ko urriaren 3tik 7ra egini-ko EUSKALTZAINDIAREN XIII. BILTZAR-ean aurkeztu nuen handi- handika "Izen arrunt bizigabeen toki-denborazko deklinabide kasuak Hegoaldeko parte batean" izeneko txostenean. Geroago lanak behar zuen osatua egiteko astirik ez eta, ez nuen argitaratu Euskaltzaindiak beren-beregi biltzar hartako lanez gertaturiko **Euskera** (1994,3) aldizkarian.

Hurrengo batean aipatu artikulu hori argitaratzen dudanean, zehatzago eta osatuago azalduko dut testuinguru berezi hori.

Jarraian ahalik eta modurik errazenean azaltzen ahalegin-duko naiz inguramen hori, gramatika katramiletan sartu barik.

Dakigunez, gradu unitateak erabiltzen ditugu tenperatura magnitutea neurtzeko, alegia, gradu kopurua adierazteko. Gradu unitateak deklinatzen ditugunean tenperatura neurtzeko

beti deklinatzen ditugu mugatu singularrean, Bizkaia-Gipuzkoetan bederen. Esaterako:

- (17) 20 gradu**KO** temperatura dago
 Temperatura 20 gradu**RA** igo da
 Temperatura egun osoan 20 gradu**AN** dago

Hau da, mugatu singularrean, deklinatzen ditugu graduak temperatura neurtu gura dugunean, temperaturaren zenbatekoa, temperaturaren kopurua zenbatera igo edo jaitsi den, zenbatean dagoen eta abar adierazi nahi dugunean. Eta goiko adibideotan zenbatzaile zehaztuak erabili baditugu ere zenbatzaile zehaztugabeak ere balia ditzakegu, ondorengo adibideotan legez:

- (18) HAINBAT gradu**KO** temperatura dago
 ZENBAT gradu**RA** igo du temperaturak?

Eta graduak ezeze beste unigateak ere era berean deklinatzen dira temperaturaren antzeko magnitute baten zenbatekoa edo kopurua adierazi gura denean, hau da, neurtu nahi dugunean. Berbarako:

- (19) Lekeitio Ondarroatik 13 kilometro**RA** dago
 Nik 8 urte**KO** semea daukat
 Gaur 4 ordu**AN** egin dut beharra

Mugatu singularrean deklinaturiko unitateek kontzeptu (distantzia, adina,...) baten unitate (kilometro, urte,...) kopurua adierazten dute, edozein leku-denbora kasutan deklinatzen direlarik unitateok.

Gauza bera esan daiteke unitateak barik osterantzeko elementuak deklinatzen ditugunean mugatu singularrean kontestu berean, hau da, multzo baten elementu kopurua adierazi gura denean. Esate baterako:

- (20) HAMABOST etxe**KO** auzoan bizi naiz. Azken hiru urteetan BOST etxe**TIK** HAMABOST etxe**RA** pasatu gara.
 ZENBAT pisu**KO** etxeak daude salgai Lekeition?

Inguramen honetan edozein elementu deklinatzeko mugatu singularrean, beti dago *multzoaren* eta beronen *elementuen* arteko erlazioa. Eta deklinaturiko elementuak multzoaren elementu kopurua adierazten du, edozein leku-denbora kasutan dagoela.

Testuinguru honetan kontzeptu bat zenbatzen dugu. Eta beronen elementuen bidez zenbatu ere. Honetara:

TENPERATURA	"gradu"	bidez
PISUA	"kilo"	bidez
HERRI KOPURUA	"herri"	bidez
ADISKIDE KOPURUA	"adiskide"	bidez
(...)		

Behin azalduz gero mugatu singularrean deklinatzeko inguramen berezi hau, gure gaira joko dut berrito. Horrela, Durango entitate kopurua adierazi gura izanez gero orain arteko ber gauza egin behar dugu, hau da, mugatu singularrean deklinatu Durango elementua. Berbarako:

- (21) Hain urtetan BI Durango-**TIK** HIRU Durango-**RA** pasatu zen Durango kopurua. Orain HIRU Durango-**KO** kopurua dago eta luzaro egongo da kopurua HIRU Durango-**AN**.

Adibideotan incesibo (NON) kasukoa, batez ere, egiten zaigu bitxia, bere artikulua eta guzti. Baina ezinbestean, nik uste, izen propio barik izen komun darabilgu-eta Durango.

Mugatu singularrezko adibideok (21) ez ditugu nahastu behar izen propio den aldetiko mugagabezkoekin. Hona hemen deklinabide mota biok elkarren erkarri:

1. Izen komun aldetiko mugatu singularra

Durango**AN**, Durango**TIK**, Durango**RA**, Durango**KO**,...

2. Izen propio aldetiko mugagabea

Durango**N**, Durango**TIK**, Durango**RA**, Durango**KO**,...

Ikusten dugunez, kasu gehienetan berdina dira formaz deklinabide biok, baina esanguran gaitzeko aldea dago. Alderatu besterik ez dago izen komunci dagozkien mugatu singularrezko esaldiak (21) izen propioen mugagabezko ondokookin:

- (22) Gu Durango**RA** goaz
- Gu Durango**N** bizi gara
- Gu Durango**TIK** gatoz
- Gu Durango**KO** gazteak dira

Ez dute, ez, esanahi berdina Durangodun sekuentziok (21)ean edo (22)an, formen antzekotasuna gorabehera.

Bertzalde, dakikegunez, leku-izen propiook behin izen komun erabiliz gero, deklinabide plural hurbilean ere deklina daitezke:

- (23) Aipaturiko Durango-**OTAN** ederto batean ibili ginen
- Esandako Durango-**OTARA** berriro itzuliko gara inoizko batean
- (...)

Eta Durango-ren gainean esanikoek balio dute antzeko leku-izen propioentzat ere. Zeren-eta leku-izen propio batzuk, entitate bat baino gehiago dutenez gero, leku-izen komun erabil baitaitezke. Esaterako Etxebarri, Getaria, Goierri, Errenteria, Elexalde eta abar. Eta denetarikoa leku-izen propioak erabiltzen dira komun: herriak, auzoak, eskualdeak eta abar. Baina hainbat leku-izen propio, bakarrak-eta, ezin daitezke leku-izen komun erabil, oraingoz behintzat.

5. KONKLUSIOA

Uste dut, sarreran esandako legez, erakutsi dudala leku izen propio batzuk leku izen komun erabil daitezkeela. Eta horrenbestez, mugatu singular, plural eta mugagabean deklinatzen direla leku-denbora kasuetan. Horretarako, aipaturiko erabilera

hori gertatzeko, zertzuk kondizio bete behar diren ere azaldu dut.

Beraz, erran dezakegu leku-izen propio batzuk euren berezko erabileraz gain badutela beste bat sekundarioa, bigarren mailakoa, non izen komun erabiltzen baitira hain egoera jakinetan.

Aztertutakoaren laburbildu bat egiteko Durango leku-izen propioen deklinabidea emanen dut ondooan:

1. Izen *propio* bizigabea den aldetik

Mugagabe	Durango N Durango RA Durango TIK Durango KO (...)
----------	-------------------------------------------------------------------------------------------

2. Izen *komun* bizigabea den aldetik

Mugagabe	Durango TAN Durango TARA Durango TATIK Durango TAKO (...)
----------	---------------------------------------------------------------------------------------------------

Mugatu singular	Durango AN Durango RA Durango TIK Durango KO (...)
-----------------	--------------------------------------------------------------------------------------------

Mugatu plural (hurbil)	Durango ETAN /Durango OTAN Durango ETARA /Durango OTARA Durango ETATIK /Durango OTATIK Durango ETAKO /Durango OTAKO (...)
------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka